



KOSTUEN EGITURA

Hurrengo hauek izango dira gure enpresan izango ditugun kostuak:

Hasteko, gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoa da lokal propio bat izatea bertan ekintza desberdinak egin ahal izateko. Lokal hau alokatua izango denez, honen kostua, 500€ ingurukoak izango dira (lokal bat edo bestea aukeratzeko momentuan prezioa aldatu egin daiteke, baina argi dugu, hori dela ordainduko dugun diru kantitate gehiena). Hau, zeharkako kostua eta finkoa izango litzateke, hilerok kantitate berdina ordainduko dugulako. Mugikorra eta wifi tarifarekin berdin, zuzeneko eta finkoko kostuak izango dira.

Behin lokala dugula, ekintzak jorratzeko hainbat produktu behar izango ditugu. Alde batetik, aulkiak. 30 aulki hartzea erabaki dugu, 25 baita ekintza bat egin ahal duten gehiegizko pertsona kopurua, beste bi, bulegoan erabiliko ditugu, eta besteak material gelan gordeko ditugu zerbaitetarako behar izanez gero. Gehienez, aulki bakoitzagatik 25€ ordainduko ditugu, beraz, aulki guztien kostua 750€ izango litzateke. Bestetik, mahaiak ditugu, 8 mahai handi hartzea erabaki dugu eta bakoitza gehienez 55€ ordaintzea, beraz, mahaien guztizko kostua 440€. Bi kostu hauek, aldakorrak izango litzatekeen, lehenengo hilean behin ordaintzen direlako eta beste hilabeteetan ez. Aurrerago, beharrezko arabera moldatzen joango gara eta behar izanez gero gehiago erosten joango gara.

Bestalde, ekintzetan erabiliko dugun materiala dago. Lehenengo hilabetean 300€ko inbertsioa egitea erabaki dugu material txokoa betetzeko. Behin ekintzen eta agortzen doazen kantitatearen arabera hilean material desberdinak erosten joango gara. Beraz, hauek ere, kostu aldakorrak dira. Baita ere, aipatzekoa da, ahal dugu heinean material birziklatua erabiliko dugula, beraz, honek, gastuak gutxitzea ere dakartza.

Azkenik, enpresako langileen soldata ere ordaindu behar dugu, hasiera batean, proiektuak ondo jarraitzen duela ikusi arte, pertsonako 1.000€ ko kostua izango da, lau partaide garenez, guztira, 4.000€ko kostua. Hilero ordainduko den zerbait denez, kostu finko eta zuzenekoak izango da.

Beraz, gure enpresak lehenengo hilean izango duen kostu kopurua guztia 6.010€koa izango da.

LEHENENGO HILABETEKO KOSTUAK



Kostu finkoak	<ul style="list-style-type: none">- Lokalaren alokairua- Mugikorra/wifi tarifa- Soldatak
Kostu aldakorrak	<ul style="list-style-type: none">- Aulkiak- Mahaiak- Materiala

Lokalaren alokairua	500€/hilabeteko	x1	500€
Mugikorra/wifi tarifa	20€/hilabeteko	x1	20€
Soldatak	1.000€/hilabeteko	x4	4.000€
Aulkiak	25€	x30	750€
Mahaiak	55€	x8	440€
Materiala	300€	x1	300€
		GUZTIRA	6.010€